ETORKIZUNA MENDI TALDEA
Basagoiti Etorbidea 69, behea. 48991 Algorta-Getxo / Tel.: 606 637 128
etorki@etorkizunamt.com / https://etorkizunamt.com

Euskaraz 1. or. **Castellano pg. 2**

BARNE-ERREGIMENEKO ERREGELAMENDUA

1. EREMUA. Barne Erregimeneko Araudi hau nahitaez bete behar dute Etorkizuna Mendi Taldeko (aurrerantzean, EMT) bazkide guztiek, bai eta Klubeko bazkide izan gabe Klubarekin nolabaiteko harremana dutenek ere: Klubak antolatutako irteeretara joatea, eta abar. (Klubaren Estatutuen 9.d artikulua)

2. IRTEERAK
a. Parte hartzaileak. EMTren irteeretan izena eman ahal izango du Klubeko jardueretan parte hartu nahi duen edozein pertsonak, adin nagusikoa bada. Adingabe batek irteera batean izena eman nahi badu, heldu batekin joan beharko da (bai guraso, bai tutore).
b. Klubeko Zuzendaritza Batzordeak pertsonaren baten **parte-hartzea mugatu** edo galarazi ahal izango du, egin beharreko ibilbidea beretzat egokia ez dela uste badu edo murrizketa egitea gomendatzen duten beste inguruabar batzuk badaude. Irteeraren zenbatekoa ordainduz gero, itzuli egingo zaio.
c. Irteeren **inskripzioa** klubaren webgunearen bidez egiten da. Zuzendaritza Batzordeak, irteera bakoitzerako, inskripzioaren epeak eta zenbatekoa ezarriko ditu, bai eta baliogabetzeko eta itzultzeko modua, epeak eta zenbatekoa ere. Halaber, bazkideentzako hobariak ezarriko ditu, zenbatekoei eta epeei dagokienez. Hori guztia klubaren webgunean erakusten da irteera bakoitzerako. Eguneko irteeretan ez da inskripzioaren zenbatekoa itzuliko ordainketa egin ondoren. Asteburuko irteera batean izen-ematea baliogabetuz gero, Klubak ez du itzuliko garraiobidearen zenbatekoa, ezta erreserba horrek Klubari eragiten dion beste edozein kostu ere.
d. Zuzendaritza Batzordeak beretzat gordetzen du programatutako txangoetan **ibilbideak aldatzeko ahalmena**.
e. Klubaren jardueretan **izena ematen duenak** mendizaletasuna praktikatzeko baimen informatua ematen du, bai eta bere irudia hartzeko eta zabaltzeko berariazko baimena ere, legezko abisuan deskribatutako baldintzetan.

3. KIROL-MATERIALA
a. Klubak erraketak, pioletak eta kranpoiak ditu bazkideen eskura. Material hau Bazkideek alokatu ahal izango dute Klubak antolatzen ez dituen jardueretarako.
b. Prezioen tarifak. Materialaren alokairuaren prezioa Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du eta bazkideek batzar orokorrean berretsiko dute.
c. Alokairuaren zenbatekoa. Materialaren alokairuaren zenbatekoa indarrean dagoen Prezioen Tarifaren eta materiala erabiliko den egun kopuruaren arabera kalkulatuko da, d eta e aidatz-zatietan jasotako kasuetan izan ezik.
d. Jardueraren egunaren aurreko asteartean jasoko da materiala EMTren lokaletan. Era berean, materiala jardueraren egunaren hurrengo asteartean itzuliko da EMTren lokaletan. Ezarritako dataren ondoren itzultzen bada, zehapen gisa 5 €ordainduko da asteko, material hori itzuli arte.
e. Materiala garbi eta egoera onean itzuliko da. Galduz gero, materiala alokatu zuen pertsonaren kontura izango da birjarpena.

REGLAMENTO DE REGIMEN INTERNO

1. ÁMBITO: Este Reglamento de Régimen Interno es de obligado cumplimiento para todas las socias y los socios de Etorkizuna Mendi Taldea (en adelante EMT), así como para aquellas personas que, no siendo socias del Club, tengan alguna relación con el mismo: asistencia a las salidas organizadas por el Club, etc. (artículo 9.d de los Estatutos del Club)

2. SALIDAS

a. **Asistentes**. Podrá inscribirse a las salidas de EMT toda persona, mayor de edad, que quiera participar en las actividades del Club. En el caso de que un menor de edad quiera apuntarse a una salida, deberá de ir acompañado de algún adulto, ya sea padre, madre o tutor.

b. La Junta Directiva del Club podrá **restringir la participación** de alguna persona cuando considere que la ruta a realizar no es adecuada o accesible para ella o cuando existan otras circunstancias que así lo aconsejen. En caso de haber satisfecho el importe de la salida, el mismo le será devuelto.

c. La inscripción a las salidas se realiza **vía web del club**. La Junta Directiva establecerá, para cada salida, tanto los plazos e importe de **inscripción**, como el modo, plazos e importe de **anulación y devolución**. Así mismo, establecerá las **bonificaciones a socias y socios** sobre cuantías y plazos. Todo ello se muestra en la **web del club** para cada salida. En las salidas de día no se procederá a la devolución del importe de la inscripción una vez efectuado el pago. En caso de anulación de la inscripción a una salida de fin de semana, el Club no devolverá el importe del medio de transporte ni tampoco cualquier otro coste que de esa reserva recaiga sobre el Club.

d. La Junta Directiva se reserva la facultad de efectuar cambios de itinerarios en las excursiones programadas.

e. Quien se inscribe a las actividades del club otorga el consentimiento informado para la práctica del montañismo y el consentimiento expreso para la captación y difusión de su propia imagen en las condiciones descritas en el aviso legal

3. MATERIAL DEPORTIVO

a. El Club dispone de raquetas, piolets y crampones a disposición de sus Socios/as. Este material podrá ser alquilado por los Socios/as para actividades no organizadas por el Club.
b. Tarifas de Precios. El precio del alquiler del material será estipulado por la Junta Directiva y ratificado en asamblea general por los Socios/as.
c. Cuantía del alquiler. La cuantía del alquiler del material se calculará en función de la Tarifa de Precios vigente y el número de días que se vaya a utilizar el material, excepto los casos recogidos en los apartados d y e.

d. La recogida del material se efectuará el martes anterior a la fecha de la actividad en los locales de ETM. Asimismo, la devolución del material se realizará el siguiente martes a la fecha de la actividad en los locales de ETM. Si se devuelve en una fecha posterior a la establecida, se abonará, como sanción, 5 € por semana durante el periodo de tiempo que dicho material sea retenido.
e. El material se devolverá limpio y en buenas condiciones. En caso de extravío, la reposición correrá a cargo de la persona que alquiló el material.